

HERNANI kronika

2003 urtea
Urtarrilak 31
Ostirala
Alea: 682
www.hkronika.com

Hernaniko Ezker Abertzaleak urteko plangintza finkatzeko batzarra egingo du Bihar Biterin

■ Bilera goizeko 09:30etan izango da eta aurreko bileran planteatutako ardatzak zehaztuko dira.

HERNANIKO Ezker Abertzaleak urteko egitasmoa finkatzeko batzarra egingo du larunbatean Biteri kultur etxean. Biharko batzarra orain dela aste batzuk egin dakoaren segida izango da, Ezker Abertzaleko kide batek Kronikari adierazi dionez. Batzar hartan urteko plangintzaren jardunbide eta proposamen nagusiak planteatu ziren eta Bihar proposamen horiek zehaztu egingo dira. Bartzarrean Udal Hauteskundeen gaia ere hitz egingo da.

Garzonak Batasuna alderdi politikoa legez kanpo utzi zue netik, Ezker Abertzaleak Hernanin ere ez du entitate legalik, Udal Taldearena izan ezik, Udal Taldeak beste entitate juridiko bat delako. Herriko tabernako kontuak enbargatuta ditu eta bere sedea ezin du erabili. □



Batasuna sortze prozesuko bileretako bat, Biterin.



Ferian postuetako toldoak ederki astindu zituen haizeak.

Haizeak bazterrak porrokatu zituen atzo Hernanin. Haizea arro ibili zen atzo arratsaldean. Hernanin ez zuen txikizio haundirik eragin, ilundu aurretik behintzat, baina sustoren bat edo beste eman zuen. Airean atera ziren feriako postuetako toldoak eta Tellerigaineko semaforoak gelditu egin ziren. Nabarmenzeko moduko beste istripu edo txikiziorik ez zen izan udalzaingoak Kronikari jakin arazi zionez. □

Oindiko tontorrera dijoan bidea garbituko dute Bihar auzolanean

MENDIRIZ Mendi eta Udalak Oindiko bidea garbitzeko dei egin dute biharko. Iaz, azaro bukaeran, zati bat garbitu zuten, Hargurutzetik tontorrera bideko, eta orain bukaera emango diote hasitakoari. Garbitzen ari diren bidea Hernaniri begira dagoena da, iparraldekoa. Hargurutzetik eskubitara Iberdueren pantaila txurira azaltzen da eta handik Oindi tontorrera.

Mendizaleen bidea

Mendizaleek asko erabiltzen duten bidea da orain garbitzen ari direna. Otek eta larrak jaten ari dute bi aldeetatik eta eutsi egin nahi diote bidezidorri, era bat galdu baino lehen. Lanak egitera azaldu nahi dutenak, goizeko 08:00etan dute zita Udale-txeko arkueetan. Lana bukatutakoan, bazkaria izango da garbiketa lanetan parte hartu duten guztientzako. □

ETXERAT ELKARTEA

Kontzentrazioa plazan

KONTZENTRAZIOA deitu du gaurko Etxeratek, errepresaliatuen eskubideen alde. Kontzentrazioa 20:00etan hasiko da. Etxeratek he ritar guztiei dei egin die azaltzeko.

Fleuryra autobusa

Frantziako Fleury-Merogisenen dauden euskal presoei elkartasuna azaltzeko autobusa aterako da gaur 19:30etan Donostia Ama ra Plazatik. Euskal presoak borrokan dira Frantziako espetxe tan bizi duten egoera salatzeko eta Hernaniko Etxeratek dei egin du Fleuryra joateko. □

Gobernu batzordea

GOBERNU batzordea bilduko da gaur Udaletxean, zazpi puntu eztabaidatzeko. Remy-Harinera ko konpentsazio proiektua da puntuetako bat; Nere Borda par keko lan botanikoa adjudikatzea; eta Udal obretako makina zaharrekin zer egin ere erabakiko dute, besteari beste. □

ZINEA BITERIN

'Harry Potter' asteburuan


Gaur 22:30etan botako dute.

MUSIKA

'Blind rock', taldea gaur

TRIKU tabernan, 23:00etan. □

UDAL TALDEEI ELKARRIZKETA



Bihar, larunbata,
Joxan Rekondo EA-EAJ
Udal Taldeko buruari
elkarrizketa Kronikan

Hernaniko
Kronika

Interneten
www.dobera.com



ADARRA

ETXE TRESNAK S.A.
Txirrita 11
Tel. 943 55 04 27
20120 HERNANI (Gipuzkoa)

**HERNANI
HIZKUNTZAK**
(HERNANI ENGLISH)
Gure Ingelesetxea

- Klase berri bat jarriko
dugu martxan:
PROFICIENCY maila.

Arratsaldeko
17:00etatik 18:00etara.

Informazioa eskatzeko:
Deitu Alan / Joe
943 33 11 08

HORBEL jatetxea

Bokatak, pintxoak,
razioak, platerak,
entsaladak, sandwichak,
hanburgesak

Etxeraino
eramango
dizugu.
Eskatu!
Lizeaga kalea 4
Tel.: 943 33 33 95

Dena %50ean

Guztia erdipreazioan

YONE
boutique

Kale Nagusia 63 -Hernani-

Hipodromo etorb. -Lasarte-

Kaldereroak Langile ikastolatik aterako dira gaur eta Elur-Txori elkartetik bihar

■ Langile ikastolakoak 15:15etan irtengo dira Meabetik ■ Elur-Txoritik 21:00etan irtengo dira eta antolatzailleek herritarrei dei egin diente parte hartzeko.

KALDEREROAK gurera iris-teko zorian dira eta gaur arratsaldean emango dute gaztetxo-enek lehenengo buelta herrian. Langile ikastolakoak Meabetik aterako dira 15:15etan eta Urbietatik aurrera Plaza Berriaino joango dira kantu eta dantza, eta bertan jarriko dute kanpamentua, 500 ume inguruk.

Bihar Elur-Txoriak antolatutako Kaldereroen txanda izango da. Lehendabizi afaria dute 19:30etan, soziedadean bertan, 100 bat lagunek. Gaueko 21:00etan irtengo dira kalez kale kazuela zaharrak mailatuz. Kaldereroen martxa irekia da eta Elur-Txorikoek dei egin diente herritarrei agertzeko larunbat iluntzea festan pasatzera. □



Langile ikastolako kaldereroak iaz kantuan.

Erreflexio prozesua Udal Hauteskundeei begira

HITZORDUAK kolektiboak erreflexio prozesua zabaldu nahi du Hernanin maiatzaren 25eko Udal Hauteskundeei begira. Sentsibilitate ezberdinako jendez osatutako kolektibo horren ustez, Ezker Abertzaleak Udal Hauteskunde-

etan aurkezteko aukerarik ez izateak arazoa oraindik eta gehiago gaiztotu lezake eta horren aurrean zer egin ote litekeen planteatu nahi dute. Kolektibo horren iritzirako onartezina PP eta PSE-EEko zinegotziak bizkartzainare-

kin ibili beharra ere. Erreflexio prozesu hori martxan jartzeko bihar goizean 10:00etan bilera irekia egingo da Biterin. Hitzordua kolektiboaren esanetan, bilerak euskera eta gaztelera, bitera izango dira. □

JASOTA BEZALA

AHTren aurkako manifestazioa Tolosan otsailaren 1ean

Aurrerapen eta garapen ekonomikoaren aitzakiaz Abiadura Handiko Trena inposatu nahi digute, eta horretarako natura eta ingurumena txiki-

tza berdin zaie. Abiadura Handiko Trenak Hernaniko naturan eta ingurumenean, oso hondatua dagoena bestalde, izango duen eragina izugarrizkoia izango da. Horregatik eta naturaren aurka hainbesteko hondamendia gelditu behar

dela pentsatzen dugunok hitzordu garrantzitsua dugu ekainaren 1ean arratsaldeko seietan Tolosan "ABIADURA HANDIKO TRENA GEL-DITU" lemaean.

Josu Arrieta.

ESKOLO KIROLA

ASTEBURUKO PARTIDUAK

Pelota	Taldeak	N o iz	Futbolsala	Taldeak	N o iz
Alebinak	Elezto B-Landaberri	Andoain	B har1615	Infantilak	Amara-Langile
Alebinak	Lanam endi Txinta	Andoain	B har1600	B enjam inak	Langile A-Elezto B
Alebinak	Langile B-Udanegi	Usubil	B har1615	B enjam inak	Langile B-Elezto A
Alebinak	Egape-Elezto A	Usubil	B har1630	B enjam inak	Langile C-Uruma
Infantilak	Hernani Gazeleku	Kiolegia	B har1230	Saskibaloia	
Infantilak	Antigua B-Elezto	Donostia	B har1730	Infantilak	Langile-San Ignacio A
Infantilak	Langile A-mantazuko	Donostia	B har1800	Ernugbia	Donostia
Infantilak	M unum endi Hernani			B enjam inak	B har1030
Bolibola				B enjam inak	Kiolegia
Kadeteak	Langile-Sta Teresa	Kiolegia	B har1630	B enjam inak	B har1130
Alebinak	Elezto-Ondaneta	Andoain	B har	Futbola	B har1145
				Taldeak	
				N o iz	

Futboleko partiduak jokatzen dira bharalebihak, baina Zubipe ez dago ondoko jokatzen moduan eta suspenditu egindako.


BIKAIN
OKINDEGI TA GOZOTEGIA
Eguneroko ogia beti Bikain...



Eziago poligonoa. Tel. 943 55 00 89
Elkano 12 - Tel. 943 55 31 42
Orkolaga 19 - Tel. 943 33 14 87
20120 HERNANI

MARI FT
ARRANDEGIA

Nagusia 36 Orkolaga 17
943 55 04 89 943 55 27 41



Oihulari Klown taldea Asteazkenean Biterin.

Oihulari Klown taldearen antzerkiak jende asko bildu zuen Biterin

DROGAREN gaia era umoretsu batean tratatu zuen Oihulari Klown taldeak asteazkenean Biterin, Gazte Txokoak, Askagintzak eta Ongintza Patronatuak antolatutako antzerkian. Drogak Larrugorritan antzezlana Hernanin estre-

natu zuten eta jende asko bildu zen Biterira.

Antzerkiaren helburua da gazteei drogen inguruan pentsatu arazteko motiboa jartzea eta drogen aurrean duten erresponspabilitatea azaltzea, guzti hori modu umoretsu batean. □

ZERBITZUAK

TELEFONOAK

- Taxiak: 943 550093
- Udaltzaingoa: 943 333288
- DYA: 943 464622
- Autobusak: 943 556662
- Anbulatorioa: 943 006666
- Jokalari anonimoak: 943 331103

FARMAZIAK

- Egunez: Bulnes Florida auzoa 943 557738
- Gauez: Bulnes Florida auzoa 943 557738

URREZKO EZTAIAK: 1953KO urtarilaren 31ean ezkondu ziren



Joxe Mari Aldasoro Piper eta Felix Alberdi 50 urte elkarrekin.

ZORIONAK familiako eta inguruko guztien partetik.

IRAGARKI MERKEAK

CAZENEVE 500 x 1000 tornoa daukat salgai. Dena reformatua, bisualizadore eta guzti. Deitu: 943 33 18 61

SAGARDOTEGIA tolare
iPARRAGIRRE
HERNANIKO SAGARDOA Biar zabalduko dugu OSINAGA AUZOA 943 55 03 28 Tel. 943 55 03 28

Asteazkenetik larunbatera zabalk. Larunbat eguerdian enkarguz.

URUMEA IKASTOLA



Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta DBH

Matrikula: otsailaren 3tik 14ra bitarte.

Non: Gay Mur eraikina, Larramendi 18

Ordutegia:

10:00-12:00 / 14:30-16:30

Telf: 943 55 04 72